**GARRAIO ETA HERRILAN SAILA**

IRAGARPENA, Garraio eta Herrilan Sailarena, Lutxanako tailerretan bogiak garbitu, pintatzeko kabina batez hornitu eta hori jartzeko lanetarako lehiaketa esleitu gabe uzteari buruzkoa. 3510

IRAGARPENA, Garraio eta Herrilan Sailarena, Lutxanako tailerretan automatikoki kargatzen den hondarretarako silo bat» hornitzeko lehiaketa esleitu gabe uzteari buruzkoa. 3511

**LAN ETA GIZARTE SEGURANTZA MINISTERIOA**

ERABAKIA, Gizarte Segurantzako Diruzaintzarena, Bilbaon (Bizkaia) egon eta Gizarte Segurantzaren jabetza den etxebizitza baten errentamendurako lehiaketa publikoa iragarten duena. 3511

ERABAKIA, Gizarte Segurantzako Diruzaintza Orokorrarena, bere jabetzakoa den inmueble bat inorenganatzeko enkante publikoa iragarteko dena. 3512

ERABAKIA, Gizarte Segurantzako Diruzaintza Orokorrarena, bere jabetzakoa den inmueble bat inorenganatzeko enkante publikoa iragarteko dena. 3513

**DEPARTAMENTO DE TRANSPORTES Y OBRAS PÚBLICAS**

ANUNCIO del Departamento de Transportes y Obras Públicas, declarando desierto el concurso para la contratación del «Suministro e instalación de cabina de limpieza y pintado de bogies para los talleres de Lutxana». 3510

ANUNCIO del Departamento de Transportes y Obras Públicas, declarando desierto el concurso para la contratación del «Suministro e instalación de silo de arena de carga automática para los talleres de Lutxana». 3511

**MINISTERIO DE TRABAJO Y SEGURIDAD SOCIAL**

RESOLUCIÓN de la Tesorería General de la Seguridad Social, por la que se anuncia concurso público para el arrendamiento de una vivienda, propiedad de la Seguridad Social, sita en Bilbao (Bizkaia). 3511

RESOLUCIÓN de la Tesorería General de la Seguridad Social, por la que se anuncia subasta pública para la enajenación de un inmueble de su propiedad. 3512

RESOLUCIÓN de la Tesorería General de la Seguridad Social, por la que se anuncia subasta pública para la enajenación de un inmueble de su propiedad. 3513

## Beste Iragarpen Ofizial Batzuk

**BAÑOS DE EBROKO UDALA**

IRAGARPENA, udalerriaren izenaren aldaketari buruzkoa. 3514

## Otros Anuncios Oficiales

**AYUNTAMIENTO DE BAÑOS DE EBRO**

ANUNCIO de la modificación del nombre del Municipio. 3514

# Xedapen Orokorrak

### KULTURA SAILA

### 1014

34/1996 DEKRETUA, otsailaren 13koa, HABEren arau organikoak onartzen dituena.

Azaroaren 25eko 29/1983 Legeak, Helduak Berreuskalduntzeko eta Alfabetatzeko eta Euskaltegiak Arautzekoak ezarri zituen Erakundearen oinarrizko ihardunegitura eta euskaltegietan gutxienez izan behar zuten gobernu-organoak. Orobat, bere hamaikagarren atalean aginduta dauka HABEren arau organikoek, Zuzendaritza-Batzordeak, bertako batzordeburuaren bitartez

# Disposiciones Generales

### DEPARTAMENTO DE CULTURA

### 1014

DECRETO 34/1996, de 13 de febrero, por el que se aprueban las normas orgánicas de HABE.

La Ley 29/1983, de 25 de noviembre, de creación del Instituto de Alfabetización y Reeuskaldunización de Adultos y de Regulación de los Euskaltegis establece la estructura organizativa básica del Instituto y determina los órganos de gobierno que como mínimo deberán existir en los euskaltegis. Establece, asimismo, en su artículo undécimo que las normas orgánicas de HABE,

proposatuta Dekretuz onartuek erabakiko dituztela, Lege hartan ezarritakoaren arabera, Erakundearen eta honen baitako Helduen euskalduntze eta alfabetatzeko ikastegi edo euskaltegien atal organikoen eraketa eta iharduna.

Era horretan, 1984an aurkeztu zitzaion Jaurlaritza Kontseiluari eta honek onartu zuen HABEren eraketa-garapenaren lehen araua, ekainaren 12ko 188/1984 Dekretuan gauzatua, eta gero irailak 3ko 270/1985 Dekretuko atal batean aldatu zena.

Eraketa organiko horrek bere hartan iraun zuen harik eta martxoaren 29ko 155/1994 Dekretuaren bitartez aldatu zen arte, gero HABEren Zuzendaritza Batzordeko batzordeburuaren 1994ko urriaren 7ko Erabakiak garatu baitzuen. Egitura organiko berri horren ondorioz, nahiz eta asmoa beste bat zen, Erakundeko arloak gehiegi zatikatzea etorri da, eta hori lanaren eragozle gertatu da. Bestalde, Dekretu hark egindako arduren banaketa bera ez dator bat Erakundeari, honek sorreratik dituen helburuak lor ditzan, eman nahi zaion norabide berriarekin. Beraz, HABE Erakunde Autonomoaren arau organiko eta ihardunak berregituratzeko, bidezko da beste Dekretu baten bitartez Erakundean eraketa administratibo berri bat ezartzea, bere egitekoen eremuan Admnistrazioak eta Gizarteak eskatzen dizkioten beharrizanei erantzun diezaien.

Azaldutakoaren ondorioz, HABEko Zuzendaritza Batzordeak hasi eta Kultura sailburuaren proposamenez Lehendakariak onartu ondoren, eta Jaurlaritza Kontseiluak 1996ko otsailaren 13an egindako bilkuran onartu eta aztertu ondoren, hauxe

XEDATU DUT:

*1. atala.*– Dekretu honen helburua da, azaroaren 25eko 29/1983 Legean agindutakoaren arabera, honen bigarren atalean azaldutako helburuak lortzeko sortu zuen Helduak Berreuskalduntzeko eta Alfabetatzeko Erakundearen (HABE) eraketa organiko eta funtzionala ezartzea, beste edozein lege-arauk agindu diezaizkiokeenen kalterik gabe.

*2. atala.*– Erakundea sortzeko Legeak agindu bezala, HABEren gobernu-sailak hauek dira:

a) Zuzendaritza Batzordea
b) Batzorde Akademikoa
c) Zuzendaritza batzordeburua
d) Zuzendari nagusia

*3. atala.*–

1.– HABEren Zuzendaritza Batzordeak azaroaren 25eko 29/1983 Legearen laugarren atalak ezarritako eraketa izango du eta Lege hartako bertako bosgarren atalak ezarritako egitekoak izango ditu.

que serán aprobadas por Decreto a propuesta del Patronato Rector, a través de su Presidente, determinarán, de conformidad con lo dispuesto en la citada Ley, la organización y funcionamiento de las distintas unidades orgánicas del Instituto y de los Centros de euskaldunización y alfabetización de adultos o Euskaltegis, dependientes de HABE.

En tal sentido ya en 1984, fue elevada y aprobada por el Consejo de Gobierno la primera norma de desarrollo orgánico de HABE, plasmada en el Decreto 188/1984, de 12 de junio, que fue modificado posteriormente en un artículo por el Decreto 270/1985, de 3 de septiembre.

Tal estructura orgánica, se mantuvo hasta que fue nuevamente modificada mediante Decreto 155/1994, de 29 de marzo, posteriormente desarrollado por Resolución de 7 de octubre de 1994 del Presidente del Patronato Rector de HABE. Como resultado de esta nueva estructura orgánica aún cuando la intención era otra, de una parte se ha llegado a una excesiva compartimentación de las diferentes áreas del Instituto, lo cual se ha revelado inoperante. Así mismo, de otra parte, la propia distribución de funciones efectuada por tal Decreto no se corresponde con la nueva orientación que se quiere dar al Instituto para el logro de los objetivos para los que fue creado. En consecuencia, con el objeto de reestructurar el régimen orgánico y funcional del Organismo Autónomo HABE, procede adoptar mediante un nuevo Decreto la nueva ordenación administrativa del Instituto, que se adecue a las necesidades que la Administración y la Sociedad demandan en el ámbito funcional asignado al mismo.

En virtud de lo anteriormente expuesto, a iniciativa del Patronato Rector de HABE, a propuesta de la Consejera de Cultura, previa aprobación del Lehendakari y deliberación y aprobación del Consejo de Gobierno en su sesión de 13 de febrero de 1996,

DISPONGO:

*Artículo 1.*– Es objeto del presente Decreto establecer, en desarrollo de lo fijado por la Ley 29/1983, de 25 de noviembre, el régimen orgánico y funcional del Instituto de Alfabetización y Reeuskaldunización de Adultos (HABE), creado por la citada Ley para el cumplimiento de los fines establecidos en el artículo 2.º de la misma, sin perjuicio de cuantos otros le sean atribuidos por otras normas legales.

*Artículo 2.*– De conformidad a la Ley de creación del Instituto, los órganos de gobierno de HABE, son:

a) El Patronato Rector
b) El Consejo Académico
c) El Presidente
d) El Director General

*Artículo 3.*–

1.– El Patronato Rector de HABE tendrá la composición que establece el artículo cuarto de la Ley 29/1983, de 25 de noviembre, y desempeñará las funciones que le atribuye el artículo quinto de la citada Ley.

2.– Hizkuntza Politikarako sailburuordea izango da Zuzendaritzako buruordea.

3.– Zuzendaritza Batzordea osatzen duten Erakunde eta Instituzioetako ordezkariek, eta hauen ordezkoek, erakunde horiek izendatuak beharko dute izan HABEren helburuekin lotutako egitekoak dituztenen artetik.

4.– Sorrerako Legeak bere 4.6 atalean agindutako ordezkariak HABEren zuzendari nagusiak proposatu eta batzordeburuak izendatuak izango dira gehienez bi urterako.

5.– Zuzendaritza Batzordeko kideek beren batzordekidetza galdu egingo dute izendatuak izatera eraman zituen kargua edo ardura galdu bezain laster.

*4. atala.–*

1.– Batzorde Akademikoa sorrerako Legeak ezarri bezala egongo da eratua, HABEren zuzendari nagusiaren burutzapean.

2.– Batzorde Akademikoko kide izango dira Hizkuntzaren Didaktika Zerbitzuko arduraduna eta Erakundeko bi teknikari gehienez, zuzenean egiteko akademiko edo pedagogikoak dituztenak eta HABEren Zuzendaritza batzordeburuak proposatu eta Zuzendaritza Batzordeak izendatuko ditu.

3.– Euskaltegietako zuzendarien ordezkaritza HABEren Euskaltegien Errejistroan bildutako Euskaltegi Publiko eta Pribatuen sei ordezkarikoa izango da gehienez.

HABEren zuzendari nagusiari dagokio euskaltegimota bakoitzari zenbat ordezkari dagozkion erabakitzea, Euskaltegien Errejistroan bildutakoen artean banatuz. Behin zenbateko hori erabakiz gero, eskari bat zuzenduko die zuzendari nagusiak dagokienei, Batzorde Akademikoan ordezkatuko dituztenak aukera ditzaten. Dagokien taldeek bat har ez badezate, edo ordezkariak izendatzeko eskaria jaso ondoren hilabete bateko epean ordezkarien berri emango ez balute, zuzendari nagusiak berak egingo dio Zuzendaritza Batzordeari proposamen arrazoitu bat, Errejistroan bildutakoetan ikaslerik gehien duten euskaltegien artean ordezkariak aukeratuz, ahalik eta ordezkari posible gehienekin, eta Batzordeak erabakiko du bi talde horietako ordezkariak izendatzea.

4.– Legez ezarrita dauzkan egitekoez gain, beste hauek ere izango ditu Batzorde Akademikoak:

a) HABEren norabide akademiko eta pedagogikoak analizatu eta Zuzendaritza Batzordeari proposatzea.

b) HABEren aginte-organoek arlo akademikoan nahiz pedagogikoan hartutako Erabakiei buruz irizpenak ematea.

c) Euskaltegi pribatu eta publikoen jarraipen eta ebaluaziorako irizpide oinarrizkoak Zuzendaritza Batzordeari proposatzea eta Euskaltegietako irakaskuntzaren arloan irizpenak ematea iritzia eska dakion gai guztietan.

d) HABErengandik edozelako diru-laguntzarik jaso dezaten helduen euskalduntzeko eta alfabetatzeko Ikas-

2.– La Vicepresidencia del Patronato corresponderá al Viceconsejero de Política Lingüística.

3.– Los representantes de las Instituciones y Entidades, que integran el Patronato Rector, así como sus suplentes, deberán ser designados por éstas, entre quienes ostenten funciones vinculadas al objeto de HABE.

4.– Los representantes, que se establecen en el artículo 4.6 de la Ley de creación, lo serán a propuesta del Director General de HABE y nombrados por el Presidente, por un plazo máximo de dos años.

5.– Todos los miembros del Patronato Rector, perderán automáticamente su condición en el momento de perder la cualidad o cargo en virtud del cual fueron designados.

*Artículo 4.–*

1.– El Consejo Académico, presidido por el Director General de HABE tendrá la composición que se establece en la Ley de creación.

2.– Serán vocales del Consejo Académico el Responsable del Servicio de Didáctica de la lengua y un máximo de dos técnicos de la plantilla del Instituto vinculados directamente a funciones académicas y/o pedagógicas designados por el Patronato Rector, a propuesta del Presidente HABE.

3.– La representación de los Directores de euskaltegis, se compondrá por un máximo de seis representantes de Euskaltegis Públicos y Privados inscritos en el Registro de Euskaltegis de HABE.

El Director General de HABE, determinará el número de representantes que correspondan a uno y otro tipo de euskaltegis, en proporción a los que se hallen inscritos en el Registro de Euskaltegis de HABE. Una vez determinado tal número, se dirigirá por el Director General una solicitud de representantes a los afectados para que éstos consensuen las personas que les vayan a representar en el Consejo Académico. Caso de que no existiera acuerdo entre los colectivos afectados o notificación determinando los representantes en el plazo de un mes desde la notificación para designar los mismos, será el propio Director General quien elabore una propuesta motivada, con el máximo de representantes posibles, entre aquellos euskaltegis inscritos en el Registro que engloben un mayor número de alumnos, al Patronato Rector que resolverá designar los representantes de cada uno de ambos bloques.

4.– Sin perjuicio de las que legalmente le vienen asignadas, serán funciones del Consejo Académico:

a) Analizar y proponer al Patronato Rector las directrices académicas y pedagógicas de HABE.

b) Informar cuantas Resoluciones en relación a las áreas académicas y pedagógicas sean emanadas de los órganos de HABE.

c) Proponer al Patronato Rector las directrices básicas para el seguimiento y la evaluación de los Euskaltegis públicos y privados y emitir dictámenes sobre cuantos asuntos sean sometidos a su consideración relacionados con las enseñanzas en los Euskaltegis.

d) Evaluar las actividades académicas y formativas desarrolladas por los Centros de euskaldunización y

tetxeen ihardun akademikoa eta irakaskuntza ebaluatzea.

e) Zuzendari nagusiak landuko duen urteko Txostenari buruz iritzi ematea Zuzendaritza Batzordearen eskuetan jarri baino lehen.

f) HABEren ikastaroak gainditzen dituzten ikasleei eman beharreko agiri edo diplomak Zuzendaritza Batzorderari proposatzea, hala behar izanez gero.

g) Aurreikusi gabeko beste edozein, era orokorrean edo berezian Zuzendaritza Batzordeak aginduz gero.

5.– Batzorde Akademikoa, bere gain dauzkan egitekoak betetzeko, bere osoan edo bere barnean sortutako taldeka ari daiteke. Zuzendaritza batzordeburuari dagokio Batzorde Akademikoa zuzendu, ordezkatu eta koordinatzea.

*5. atala.–* Zuzendaritza batzordeburuari dagokionez, sorrera-legeko 9. atalean ezarritakoa beteko da, eta legeak aurreikusigabeko gauza guztietan, HABEren Zuzendaritza Batzordeak har ditzan erabakiak.

Kargu hori hutsik balego edo karguduna ausente edo gaixorik, HABEren Zuzendaritza Batzordeko buruordeak ordezkatuko du, eta, orobat, honen esku utz ditzake batzordeburuak bere ihardun–alorrean egoki deritzon eginkizun guztiak.

*6. atala.–*

1.– HABEren zuzendari nagusia da Erakundearen kudeaketa-arduradun ohikoa, eta azaroaren 25eko 29/1983 Legeak ezarri zizkion egitekoez gain, beste hauek ere badagozkio:

a) HABEko langile administratiboen eta Erakundearen goi aginte-sailen arteko ohiko bitarteko izatea eta, era berean, Erakundea atxikita dagoen Administrazio Orokorreko Sailarekiko harremanetarako organo izatea.

b) Erakundeko zerbitzuek burutu beharreko lanaren diseinua eta banaketa eta zerbitzu horien arteko koordinaziorako egoki deritzon neurri guztiak hartzea.

c) Arlo bakoitzeko arauek Erakunde Autonomoetako zuzendariei langile-gaietan ematen dizkieten egitekoak burutzea.

d) Erakundearen diru-sarrera eta gastuen aurrekontuen egikaritzan legeak beste ezein organori esleitu ez dizkion erabakiak hartzea.

e) Kontratazio organo gisa ihardutea.

f) Erakundea sortzeko Legeak aipatzen duen Euskaltegien Errejistroko buru izatea eta bidezko diren inskribapenak egin eta eskatutako ziurtagiriak ematea.

g) Zuzendaritza Batzordeak edo/eta batzordeburuak agindu diezaiokeen beste zeinahi.

2.– HABEren zuzendari nagusiaren kargua hutsik dagoenean edo bera ausente edo gaixorik, HABEren Zuzendaritza batzordeburuak izenda dezan Zerbitzuko buruak ordezkatu ahal izango du.

alfabetización de adultos que obtengan algún tipo de financiación procedente de HABE.

e) Informar sobre la Memoria Anual del Instituto, que elabore el Director General, con carácter previo a su puesta a disposición al Patronato Rector.

f) Proponer, en su caso, al Patronato Rector los certificados o diplomas a otorgar a los alumnos que superen los diferentes cursos de HABE.

g) Cuantas otras, no previstas, le vengan encomendadas con carácter general o específico por el Patronato Rector.

5.– Para el cumplimiento de las funciones que le son asignadas el Consejo Académico, podrá funcionar en Pleno o en las Comisiones que en su seno sean creadas. El Presidente ostenta las facultades de dirección, representación y coordinación del Consejo Académico.

*Artículo 5.–* En cuanto al Presidente se estará a lo dispuesto por el artículo 9.º de la Ley de creación y en lo no previsto legalmente, a los acuerdos que sobre la misma pueda adoptar el Patronato Rector de HABE.

En caso de vacante, ausencia o enfermedad será sustituido por el Vicepresidente del Patronato Rector de HABE, en quien podrá delegar, así mismo, las funciones que en su ámbito de actuación estime oportunas.

*Artículo 6.–*

1.– El Director General de HABE, es el órgano de gestión ordinaria del Instituto correspondiéndole además de las funciones que la Ley 29/1983, de 25 de noviembre, las que a continuación se relacionan:

a) Mantener la interlocución habitual entre el personal administrativo de HABE y los órganos superiores del Instituto, así como también ser el órgano de relación con el Departamento de la Administración General de la Comunidad Autónoma al que se halle adscrito el Instituto.

b) Diseño y distribución de las labores a desarrollar por los diferentes servicios del Instituto y adopción de cuantas medidas estime oportunas conducentes a la coordinación de los mismos.

c) Ejercer aquellas funciones que en materia de personal les vienen atribuidas a los Directores de Organismos Autónomos por la normativa sectorial.

d) Adoptar los acuerdos que no se hallen legalmente asignados a otro órgano, en relación a la ejecución del estado de gastos e ingresos del Presupuesto del Instituto.

e) Actuar como órgano de contratación.

f) Ejercer la jefatura, ordenar los asientos que procedan y emitir las certificaciones que se soliciten del Registro de Euskaltegis al que se refiere la Ley de creación del Instituto:

g) Cuantas otras le sean encomendadas legalmente por el Patronato Rector y/o por el Presidente de HABE.

2.– En caso de vacante, ausencia o enfermedad el Director General de HABE podrá ser suplido por el responsable del Servicio que designe el Presidente del Patronato Rector de HABE.

*7. atala.–* HABE, bere helburuak betetzeko, honako zerbitzu administratibo hauetan eratuta egongo da zuzendari nagusiaren menpekotasun zuzenean:

a) Hizkuntzaren didaktika Zerbitzua

b) Kudeaketa Zerbitzua

Zerbitzu horiei espreski ezarritako egitekoez gain, zuzendari nagusiak zerbitzu arteko lan-taldeak sortu ahal izango ditu xederen batek hala eska dezanean. Zuzendari nagusiak ezarriko ditu, hala baderitzo, lantalde horien ihardunerako arauak.

*8. atala.–* Azaroaren 25eko 29/1983 Legearen hamabigarren atalak ezartzen duen guztirako, Glotodidaktika Aplikatuaren Zerbitzuak Hizkuntzaren didaktika Zerbitzua izena hartuko du, eta, azaroaren 25eko 29/1983 Legearen hamabigarren atal horretan ezarritako eginkizunez gain, beste hauek ere burutuko ditu:

a) Helduen euskalduntze eta alfabetatzeko ikasketaplanak eta curriculumak prestatu, eta orobat HABEren Errejistroan bildutako edo bilduko diren euskaltegietako irakasleak eguneratu eta etenik gabe hezitzeko egitasmoak.

b) Helduen euskalduntzen eta alfabetatzen ari diren erakunde edo lan-taldeekin elkarlana, heziketa-proiektuak proposatuz eta bere iritzipean jarritako gaiei buruzko txostenak eginez.

c) Euskara hobeto irakatsi eta zabaltzeko behar diren baliabide pedagogiko-didaktikoak programatzea.

d) Euskara hobeto ikasi eta erabiltzeko behar diren baliabideak prestatu eta horiei buruz aholku ematea.

e) Euskara ikasi eta zabaltzeko materialak argitaratzearekin eta banatzearekin zerikusia duten jarduerak.

f) HABEk euskararen ikaskuntza eta erabilerarako ezarritako egitasmo eta norabideen aplikazioan euskaltegi bakoitza aholkatu, jarraitu eta ebaluatzea.

g) HABEk eskuratu beharreko bibliografiari buruz iritzi ematea eta ikuskatzea.

h) HABEren batzordeburuak edo zuzendariak eman diezaion beste edozein.

*9. atala.–*

1.– Kudeaketa Zerbitzuari dagozkio Erakundeko beste sailei laguntzeko eginkizunak, HABEren egitekoak zuzen bete ditzaten, legearen, ekonomiaren eta orohar prozedura edo/eta administrazioarloan egoki den guztian. Eginkizun horien barnean sartzen da Administrazio Orokorraren zerbitzu bateratuek edo Erakundea atxikita dagoen Sailak bideratu beharreko espedienteen zuzentasuna egiaztatzea ere.

2.– Dena den, Kudeaketa Zerbitzuak honako egiteko hauek burutuko ditu:

*Artículo 7.–* Para el cumplimiento de los fines asignados a HABE, bajo la directa dependencia del Director General, el Instituto se estructurará en los siguientes servicios administrativos.

a) Servicio de Didáctica de la Lengua.

b) Servicio de Gestión.

Sin perjuicio de las funciones que les sean expresamente atribuidas a los citados Servicios, el Director General podrá establecer Comisiones de trabajo entre servicios cuando la naturaleza de algún cometido así lo requiera. El Director General fijará, si lo estima procedente, el régimen de funcionamiento de tales Comisiones de trabajo.

*Artículo 8.–* A todos los efectos que prevé el artículo duodécimo de la Ley 29/1983 de 25 de noviembre el Servicio de Glotodidáctica Aplicada, tendrá la denominación de Servicio de Didáctica de la Lengua, desarrollando además de las funciones atribuidas en virtud del citado artículo duodécimo de la Ley 29/1983, de 25 de noviembre, las siguientes:

a) Elaborar los planes de estudios y diseños curriculares de euskaldunización y alfabetización de adultos, así como los planes de reciclaje y formación permanente del personal docente de los euskaltegis que estén inscritos o vayan a inscribirse en el Registro de euskaltegis de HABE.

b) Colaborar con las entidades o grupos de trabajo que desarrollen tareas de alfabetización y euskaldunización de adultos, mediante propuestas de proyectos pedagógico-didácticos y emitiendo informes sobre los asuntos que sean sometidos a su consideración.

c) Programar el material pedagógico-didáctico necesario para la mejor enseñanza del euskara y su difusión.

d) Elaborar y asesorar sobre los recursos pedagógico-didácticos necesarios para la mejora en el aprendizaje y uso del euskera.

e) Lo relacionado con la publicación de materiales dirigidos al uso y aprendizaje del euskera.

f) Realizar el asesoramiento, seguimiento y evaluación de la aplicación de las directrices y planes establecidos por HABE para el aprendizaje y uso del euskera, realiza cada euskaltegi.

g) Revisar e informar acerca del material bibliográfico a adquirir por HABE.

h) Cualesquiera otros que le sean encomendados por el Presidente y el Director de HABE.

*Artículo 9.–*

1.– El Servicio de Gestión se configura como aquél al que competen las funciones de apoyo a los demás órganos del Instituto en cuantos cometidos de orden jurídico, económico y en general de naturaleza procedimental y/o administrativa sean procedentes, para el correcto desarrollo de las funciones de HABE. Tal ámbito de actuación incluye verificar la corrección de los expedientes que hayan de ser tramitados por los servicios de gestión unitaria de la Administración General, o por el Departamento al que se halle adscrito el Instituto.

2.– En todo caso el Servicio de Gestión desarrollará las siguientes funciones:

a) Erakundearen kontratazio-espedienteen tramitazio administratiboa, dagokien Zerbitzuekin batean. Era berean, Euskadiko Ondarearen Legeak agindutakoaz gain, HABEren jabetzako edo honen esku dauden ondasun demanialen eta patrimonialen inbentarioa edukiko du.

b) Zuzendari nagusiari laguntzea eta Aurrekontuen Anteproiektuen prestakuntzan Zerbitzuak koordinatzea.

c) Zuzendari nagusiari laguntzea aurrekontuen kudeaketa, kontrol eta segimenduan.

d) Langileen lansariak, ordainketak eta beste administrazio-alderdiak kudeatzea.

e) Erakundearen lege-aholkularitza, HABEk, egoki izanda, hartzen dituen xedapen eta burutzen dituen egintza administratiboei buruz, alderdi juridikotik eta lege-arauen ikuspegitik iritzia emanez.

f) HABEren Liburutegia kudeatzea eta bertarako materiala liburutan edo Erakundearen sailetan izan dadin beste edozein euskarritan biltzea, material horien eskuratzea koordinatuz eta horiei buruzko informazioa Zerbitzuei eta kanpoko jendeari emanez.

g) HABEren idazki eta agiriak itzuli edo/eta zuzentzea.

h) Jendeari zuzeneko atentzioa ematea eta Erakundeko Errejistroa eramatea.

i) Azaroaren 25eko 19/1983 Legearen 14. atalak dioen Euskaltegien Errejistroa eramatea, eta Erakundearen helburuek eskatzen dituzten datu-bankuak sortu eta egunean edukitzea.

j) Diru-laguntza ematen zaien Euskaltegiek bete beharreko baldintzak bete ditzaten arduratzea, eta diru-laguntza horiek emandako helburuetarako erabiltzen dituztela zaintzea, behar denean euskaltegi horietan plangintza bat burutzeko txosten egokiak eginez.

k) HABEren aginte-organoek agindutako beste edozein.

GEHIGARRIZKO XEDAPENA

*Bakarra.*– HABEko organo kolegiatuek, beren ezaugarri berezi eta beren burua arautzeko izan dezaketen gaitasunaren kalterik gabe, beren iharduera eta akordioak azaroaren 26ko 30/1992 Legeak, Administrazio Publikoen Errejimen juridikoaren eta Prozedura Admnistratiboarenak, ezarritakoari doituko dizkiote.

Euskaltegi pribatu edo publikoen ordezkaritza duten Zuzendaritza Batzordeak edo Batzorde Akademikoak, Dekretu hau indarrean jarri ondorengo sei hilabeteetan bilerak egin ditzakete ordezkari horiek gabe, artean organo horietako ordezkariak izendatuta ez badaude.

a) La tramitación administrativa de los expedientes de contratación del Organismo, en coordinación con los Servicios afectados. Así mismo, sin perjuicio de lo dispuesto por la Ley de Patrimonio de Euskadi, mantendrá un inventario de los bienes demaniales y patrimoniales, que estuvieren adscritos o a disposición de HABE.

b) La colaboración con el Director General y la coordinación de los Servicios en la elaboración del Anteproyecto de Presupuestos.

c) Coadyuvar con el Director General en la gestión, control y seguimiento económico-contable del presupuesto.

d) Desarrollar la funciones de gestión de nóminas, retribuciones y demás aspectos relacionados con la administración del personal.

e) Ejercer la asesoría jurídica del Organismo, informando desde una perspectiva jurídica y de integración en el seno del marco normativo general las disposiciones y actos administrativos que siendo procedente emanen de HABE.

f) La gestión de la Biblioteca de HABE y la compilación del material bibliográfico o en cualquier otro soporte que haya en las dependencias del Instituto, con el objeto de coordinar las adquisiciones e información del mismo entre los diferentes Servicio o al público en general.

g) La traducción y/o corrección de los textos o documentos de HABE.

h) La atención directa al público en general y la llevanza del Registro del Instituto.

i) Llevar el Registro de Euskaltegis a que se refiere el artículo 14 de la Ley 19/1983, de 25 de noviembre, así como crear y mantener al día los bancos de datos necesarios para el logro de los objetivos del Organismo.

j) Velar por el cumplimiento de los requisitos que se exijan a los Euskaltegis subvencionados, así como del adecuado destino de las subvenciones, elaborando, en su caso los Informes oportunos dirigidos a que sea elaborada una planificación de tales euskaltegis.

k) Cualesquiera otras que le sean encomendadas por los órganos de gobierno de HABE.

DISPOSICIÓN ADICIONAL

*Unica.*– Sin perjuicio de la capacidad que tengan para autorregularse y de sus propias peculiaridades, los órganos colegiados de HABE ajustarán su funcionamiento y régimen de acuerdos a lo establecido en la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común.

Las reuniones que se celebren del Patronato Rector y del Consejo Académico de HABE en los que estén representados los euskaltegis públicos y/o privados, dentro de los seis meses siguientes a la entrada en vigor del presente Decreto, sin que se haya verificado la designación de los representantes de los mismos en tales órganos, podrán celebrarse prescindiendo de tales vocales.

INDARGABETZE XEDAPENA

Dekretu honek martxoaren 29ko 155/1994 Dekretua eta dekretu honetan bertan ezarritakoaren aurkako maila bereko edo beheragoko xedapenak oro indargabetzen ditu.

AZKEN XEDAPENAK

*Lehenengoa.*– Kultura sailburuari baimena ematen zaio Dekretu honetan agindutakoa gara eta ezar dezan.

*Bigarrena.*– Dekretu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratutako biharamunean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteizen, 1996ko otsailaren 13an.

Lehendakaria,
JOSÉ ANTONIO ARDANZA GARRO.

Kultura sailburua,
M.ª CARMEN GARMENDIA LASA.

DISPOSICIÓN DEROGATORIA

El presente Decreto deroga el Decreto 155/1994, de 29 de marzo y cuantas disposiciones de igual o inferior rango contravengan lo establecido en él.

DISPOSICIONES FINALES

*Primera.*– Se autoriza a la Consejera de Cultura para el desarrollo de lo dispuesto en el presente Decreto.

*Segunda.*– El presente Decreto entrará en vigor al día siguiente de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

Dado en Vitoria-Gasteiz, a 13 de febrero de 1996.

El Lehendakari,
JOSÉ ANTONIO ARDANZA GARRO.

La Consejera de Cultura,
M.ª CARMEN GARMENDIA LASA.

# Agintariak eta Langileria

## Oposaketak eta Lehiaketak

### HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILA

**1015**

ERABAKIA, 1996ko otsailaren 5ekoa, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saileko Langilegoaren Kudeaketa zuzendariarena, Bigarren Mailako Iraskuntzako Irakasleen, Lanbide Heziketako Irakasle Teknikoen eta Hizkuntza Eskola Ofizialetako Irakasleen Kidegoetako irakaskuntza funtzionarien Toki Aldatze lehiaketaren Balorazio Batzordeetan parte hartuko duten batzordekideen zerrenda argitaratzen duena.

Bigarren Mailako Irakaskuntza Irakasleen, Lanbide Heziketako Irakasle Teknikoen eta Hizkuntza Eskola Ofizialetako Irakasleen Kidegoetako irakaskuntza funtzionarien Toki Aldatze lehiaketaren Balorazio Batzordeetan parte hartuko duten batzordekideak aukeratzeko 1996ko urtarrilaren 15eko Erabakiaren bidez (25eko EHAA) iragarri zen zozketa egin ondoren, hauxe

ERABAKI DUT:

*Atal bakarra.*– Lehen aipatu eta erabaki honen eraskinean agertzen diren Balorazio Batzordeetan parte hartuko duten batzordekideen zerrenda argitaratzea.

Vitoria-Gasteiz, 1996ko otsailaren 5a.

Langilegoaren Kudeaketa zuzendaria,
JESÚS MARÍA LAKARRA ARRASTIA.

# Autoridades y Personal

## Oposiciones y Concursos

### DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN, UNIVERSIDADES E INVESTIGACIÓN

**1015**

RESOLUCIÓN de 5 de febrero de 1996, del Director de Gestión de Personal, del Departamento de Educación, Universidades e Investigación, por la que se hace publica la relación de vocales que formarán parte de las Comisiones Baremadoras del concurso de traslados de los funcionarios docentes de los Cuerpos de Profesores de Enseñanza Secundaria, Profesores Técnicos de Formación Profesional y Profesores de Escuelas Oficiales de Idiomas.

Celebrado el sorteo, anunciado por Resolución de 15 de enero de 1996 (BOPV de 25), para elección de vocales que han de formar parte en las Comisiones Baremadoras de concurso de traslados de los funcionarios docentes de los Cuerpos de Profesores de Enseñanza Secundaria, Profesores Técnicos de Formación Profesional y Profesores de Escuelas Oficiales de Idiomas,

RESUELVO:

*Artículo único.*– Hacer pública la relación de vocales que habrán de formar las citadas Comisiones Baremadoras y que figuran en el anexo a la presente Resolución.

En Vitoria-Gasteiz, a 5 de febrero de 1996.

El Director de Gestión de Personal,
JESÚS MARÍA LAKARRA ARRASTIA.